

4- Diru-iturriak

Gure enpresa aurrera eraman ahal izateko, hainbat eremuetatik jasotzen ditugu diru sarrerek, esate baterako, diru hori beharrezkoa da aurrera egin ahal izateko. Hau da, kontratatuta dauzkagun langileen eta irakasleen soldata ordaintzeko edo, hilabetean zehar izan ditzazkegun gastuak ordaintzeko; adibidez, material berria erosi, alokairua ordaindu edo argindarra ordaindu.

Eremu horietako bat, bezeroak dira. Alde batetik, gure zerbitzuaren truke diru kantitate bat irabazten dugu hilabetero; eta diru hori erabilgarri daukagu gure gastuetarako. Era berean, bazkide egiten direnek, hileroko diru kantitate bat ordaindu behar dute haien bazkidetza mantentzeko. Bazkide egiteko aukera daukate gure bezero guztiek, identifikazio txartela bat egin behar dute gure ofizinan eta bazkidetza mantentzeko 25 euro ordaindu beharko dituzte hilabetero. Beraz, bazkidetzatik etekin handiak ateratzen ditugu.

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzatik diru-laguntza batzuk jasotzen ditugu hilabetero gure proiektua aurrera eraman ahal izateko. Azken finean, enpresa berria garenez, inbertsio handiak egin behar izan ditugu hasiera batean; beraz diru-laguntza horiek jasotzen ditugu aurrera egin ahal izateko.

